



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko irailaren 17a

13. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Iruñean Auzialdiko 10. Familia Epaitegi berria gaitzeko kreditu-gehigarria ematekoa (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da HMEI indizearen araberako hipoteken arazoak ukitutako pertsona-kopuruari eta izandako eragin ekonomikoari buruzko datuak bil ditzan. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege bat taxutu dezan desgaitasuna duten pertsonen babesa eta beharrezkoak dituzten laguntzen sistema bermatzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errege-erreginak eta Vianako eta Asturiasko printzesa gonbida ditzan antolatzen dituen protokolozko ekitaldietara eta, bereziki, Vianako Printzea saria emateko ekitaldira. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (7. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Iruñean Auzialdiko 10. Familia Epaitegi berria gaitzeko kreditu-gehigarria ematekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2019ko irailaren 11n hartutako Erabakiaren bidez, Iruñean Auzialdiko 10. Familia Epaitegi berria gaitzeko kreditu-gehigarria emateko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Iruñean Auzialdiko 10. Familia Epaitegi berria gaitzeko kreditu-gehigarria emateko Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, Iruñean Auzialdiko 10. Familia Epaitegi berria gaitzeko kreditu-gehigarria ematekoa

ATARIKOA

Martxoan, Ministroen Kontseiluak onetsi zuen unitate judizial berriak, epaitegiak, sortzea Estatu-ko lurralde eremu guztian, eta Nafarroari egokitu zitzaion Auzialdiko 10. Epaitegi berria sortzea, familia aferetarako, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari egindako eskaerarekin bat etorritz.

Uztailaren 11ko Ministro Aginduaren bidez (uztailaren 16ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua), epaitegiak indarrean sartzeko egutegia zehaztu zen, eta Nafarroako epaitegi berriarentzat azaroaren 30a ezarri zen datatzat.

Ikusi da Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren aurrekontuko diru kopuruak ez direla aski aurre egin ahal izateko Iruñean Auzialdiko 10. Familia Epaitegi berria gaitzeko egin beharreko obren finantzaketa premiei.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehenengo paragrafoak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta kreditua ez bada aski, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, kreditu-gehigarri bat ematekoa. Era berean, bigarren paragrafoan xedatzen du kreditu-gehigarria edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzen ahal dela, Parlamentuak zuzenketen ondorioz edo foru lege honen xedepena direla-eta berriaz onetsitako kredituetatik datozenak barne.

1. artikulua. Kreditu-gehigarria ematea.

Ematen da 110.000 euroko kreditu-gehigarri bat aurre egin ahal izateko Iruñean Auzialdiko 10. Familia Epaitegi berria gaitzeko egin beharreko obren finantzaketa premiei.

Gehigarri hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
030001 03000 6020 112100 Eraikin judizialak	48.000,00
030001 03000 6031 112100 Instalazioak eraikin judizialetan	30.000,00
030001 03000 6050 112100 Bulegoko altzariak eta ekipamenduak	16.000,00
030001 03000 6060 112100 Informazio prozesuetarako ekipamenduak	16.000,00

2. artikulua. Kreditu-gehigarriaren finantzaketa.

Kreditu-gehigarri hau aurrekontuko partida honen kargura finantzatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
010001 01000 4609 921100 (E) Toki entitateentzako dirulaguntzak irisgarritasun planak egiteko	110.000,00

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da HMEI indizearen arabeko hipoteken arazoak ukitutako pertsona-kopuruari eta izandako eragin ekonomikoari buruzko datuak bil ditzan.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita HMEI indizearen arabeko hipoteken arazoak ukitutako pertsona-kopuruari eta izandako eragin ekonomikoari buruzko datuak bil ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Europar Batasunak Luxenburgon duen abokatu nagusi Maciej Szpunar jaunak erabakia hartu zuen Hipoteka Maileguen Erreferentzia Indizeari dagokionez. Erabakiaren arabera indizeak babes judizialaren pean egon behar du, jakite aldera abusuzkoa ote den, eta horrek eragina izan dezake milaka nafarregan, hipoteka-mailegua indize hori onartuz sinatu zutelako.

Aipatu indizearekin lotutako maileguetan eragin larria eduki zuen euriborraren beheranzko jorak. Izan ere, HMEI hori duten hipotekek behera egin zuten, baina zenbatekoa euriborrarena baino

askoz txikiagoa izan zen, eta horren ondorioz hainbat kasutan, erreferentzia bata ala bestea izan, alde nabarmena egon da ezaugarri bertsuak dituzten maileguen hileko kuotetan.

Europar Batasuneko magistratuaren txostenak dio Espainiako epaileek aztertu behar dutela hipotekak modu gardenean merkaturatu ziren ala ez, besterik gabe indize ofiziala izateak ez dielako egozten, automatikoki, beharrezkoa den gardentasuna. Ezezkoan, abusuzko deklaratu behar dira eta Espainiako finantza entitateek bezeroei itzuli beharko liekete gehiegiz kobratutako dirua.

Kasua 2013an eraman zen epaitegietara. Lehen eta bigarren auzialdiko epaitegi askok HMEIa kontratuan sartzeko klausula, abusuzkoa izateagatik, deuseztasuna deklaratu ondoren, 2017ko abenduaren 14an Auzitegi Gorenak, HMEIaren deuseztasunerako tramitera onartutako lehen demandaren kasuan, bankaren aldeko epaia eman zuen. Auzitegi Gorenak, 669/2017 epaian, bazter utzi zuen HMEI klausula abusuzko deklaratu ahalko zenik, sinatzen zuten magistratuen arabera aipatu klausulari ez zitzaiolako aplikatu behar inolako gardentasun kontrolirik. Epaian boto partikular bat egon zen, bi magistratuk sinatua. Bertan esaten zen epaia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren aurkakoa zela, eta honako hau gehitzen zuen HMEI horri buruz: "kontsumitzaile arruntarentzat duen ulergarritasun konplexuagatik egokia izan daiteke gardentasunaren kontrola jaso ahal izatea".

Espainiako Auzitegi Gorenean hain irizpide ezberdinak egonik, auzia Europar Batasuneko Justizia Auzitegira iritsi zen, zeinak, Bartzelonako epaitegi batek igorritako judizio aurreko arazo baten bidez, gaiari buruzko interpeleazioa egin baitzion. Beste alde batetik, une hartan Espainiako Gobernuak ohar batzuk aurkeztu zituen, bankaren interesak defendatzera bideratuak; bertan

argudiatzen zen ez zela beharrezkoa aztertzea HMEI klausula gardena zen ala ez, eta, halaber, HMEIa abusuzkoa izateagatik baliogabe deklaratu balitz, ez lukeela atzeraeragineko ondoriorik eduki beharko, neurri horrek banku-entitateen emaitza-kontuan edukiko lukeen inpaktu ekonomikoagatik. Estatuaren abokatutzak 2018ko ekainaren 7an aurkeztu zion idazkia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari.

Eta orain auzitegi horretako abokatu poloniarra Auzitegi Gorenaren epaiarekiko desadostasuna adierazi zutenen alde agertu da.

Alderdi ekonomiko eta sozialetik duen garrantziagatik, eta Nafarroako herritar askorengan izan dezakeen eraginagatik, Nafarroako Parlamentuak premiatzen du:

1.- Nafarroako Gobernua, datuak bildu ditzan Foru Komunitatean ukitutako kopuruari eta izandako eragin ekonomikoari buruz.

2.- Nafarroako Gobernua, leihatila-bulego bat eratu dezan nafarrei lege-aholkularitza emateko beren interesak defendatze aldera, HMEIaren erreferentziako hipotekek sortutako arazoek ukituta geratu badira.

3.- Estatuako Gobernua, behar diren urratsak egin ditzan Estatuako abokatutzak lan egin dezan herritarren interesen alde, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren txostena betearaziz, eta ez finantza entitateen asmoak defendatuz.

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege bat taxutu dezan desgaitasuna duten pertsonen babesa eta beharrezkoak dituzten laguntzen sistema bermatzeko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru lege bat taxutu dezan desgaitasuna duten pertsonen babesa eta beharrezkoak dituzten laguntzen sistema bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, 2019ko irailaren 19ko Osoko Bilkuran eztabaidatu

eta bozkatzeko. Mozioaren bidez premiatzen da foru lege bat taxutu dadin desgaitasuna duten pertsonentzako babesa eta beharrezkoak dituzten laguntzen sistema bermatzeko.

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa nazioarteko lehenengo hitzarmena da desgaitasuna duten pertsonen eskubideak berariaz aztertzen dituen. Espainiako Gobernuak 2008ko apirilaren 21ean berretsi zuen konbentzioa.

Konbentzioak berekin ekarri zuen aitortzea desgaitasuna duten pertsonen eskubidea dutela gizartean guztiz eta eraginkortasunez parte hartzeko, bizitzaren esparru guztietan baldintza berdinak dituztela, lehenetsita, betiere, desgaitasuna duten pertsonentzat nolako garrantzia daukaten autonomiak, banakako independentziak eta norberaren erabakiak hartzeko askatasunak.

Aipatzen du zeinen garrantzitsuak diren desgaitasuna duten pertsonentzako aukera-berdintasunari buruzko printzipioak, nazio- eta eskualde-mailako zein nazioarteko arau, plan, programa eta neurriak sustatu, taxutu eta ebaluatzeko faktore gisa, haien bidez desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasun handiagoa eman ahal izateko.

Aldi berean, konbentzioak aipatzen du familia dela gizartearen batasun kolektibo natural eta funtsezkoa, eta familiak eskubidea duela gizartearen eta Estatuaren babesa jasotzeko; orobat aipatzen du desgaitasuna duten pertsonak eta haien senideek beharrezkoak diren babesa eta laguntza jaso behar dituztela, lagungarri gerta daitezten desgaitasuna duten pertsonak beren eskubideak guztiz eta baldintza berdinetan gozatzeko.

Testuinguru horretan, familien egitekoak eta parte-hartzeak funtsezkoak izaten jarraitzen dute, zeren eta familien baitan garatzen baitira desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea, autonomia eta garapena eta, oro har, familiaren ongizatea hobetzeko tresna eta lanabesak erraztuko dituzten laguntza naturalak.

Hori dela eta, beren kideen artean desgaitasuna duen pertsona bat duten familiek kezka handia izaten dute beraiek ez daudenean familiako kideak jasoko dituen laguntzen ezaugarriei buruz hartzen diren erabakiak direla eta.

Kezka horretatik sortzen da foru lege baten bidez bermatu behar izatea desgaitasuna duen pertsonaren gustu eta lehentasunen araberako etorkizuneko laguntzen plangintza egiteko mekanismoa.

Foru lege honekin, familiek segurtatuta edukiko lukete desgaitasuna duen pertsonarentzako laguntzak kudeatu eta emateaz arduratzen diren pertsonak kontuan hartuko dituztela desgaitasuna duen pertsona horren gustu, desio, jomuga, lehenetasun eta interesak.

Eta desgaitasuna duten pertsonen gaurko eta etorkizuneko eskubideak juridikoki finkatuko lirateke, eta, aldi berean, haien beharizanen arreta berehalakoa eta integrala izanen litzateke, eta pertsona erdigunean jarrita.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du foru lege bat taxutu dezan desgaitasuna izan eta erabakiak hartzeko autonomia personala mugatua duten pertsonentzako babesa eta laguntzen sistema bermatzeko, eta familiaren edo legezko ordezkariaren bitartez beren lehentasunak adierazi ahal ditzaten arreta integralari, aukera-berdintasunari eta erkidegoko ingurunean parte-hartze aktiboa izateari buruz, familiaren laguntzak huts egiten dienean.

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errege-erreginak eta Vianako eta Asturiasko printzesa gonbida ditzan antolatzen dituen protokolozko ekitaldietara eta, bereziki, Vianako Printzea saria emateko ekitaldira.

NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Navarra Suma talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita errege-erreginak eta Vianako eta Asturiasko printzesa gonbida ditzan antolatzen dituen protokolozko ekitaldietara eta, bereziki, Vianako Printzea saria emateko ekitaldira.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita errege-erreginak eta Vianako eta Asturiasko printzesa gonbida ditzan antolatzen dituen protokolozko ekitaldietara eta, bereziki, Vianako Printzea saria emateko ekitaldira.

1978ko Konstituzioak –Espainiako herri osoak bozkatu baitzuen urte horretako azaroaren 3an– ezarri zuen gure herria monarkia konstituzional eta demokratiko bat dela. Juan Carlos erregeak 2014an abdikatu zuenean, Felipe erregeak hartu zuen Estatuburutza, Konstituzioan ezarritako mekanismoekin bat etorritz.

2015era arte, Espainiako errege-erreginak eta artean Asturiasko Printzea zena gonbidatuta etorri ohi ziren Nafarroako Gobernuak antolatutako protokolozko ekitaldi garrantzitsuetara. Adeitasun instituzionalaren adierazpide bat izateaz gain, Estatuarekiko eta Konstituzioarekiko leialtasun-adierazpide bat ere bazen. Zehazki, errege-erreginak edo Vianako eta Asturiasko printzeak Vianako Saria emateko ekitaldian egoteak –hori horrela izan da saria 1990ean sortu zenez geroztik– sari horri ospea emateko eta foru erkidegotik kanpoko hedabideetan oihartzuna izateko balio izan du.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du errege-erreginak eta Vianako eta Asturiasko printzesa gonbida ditzan antolatzen dituen protokolozko ekitaldietara eta, bereziki, Vianako Printzea saria emateko ekitaldira.

3. Nafarroako Parlamentuak Errege-etxeari barkamena eskatzen dio azken lau urteotan ez gonbidatzeagatik, eta berriro egiten du Monarkiarekiko eta Estatu Konstituzionalarekiko leialtasuna.

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

